



GENERO IKUSPEGIA VITORIA-GASTEIZKO HAPO-AREN BERRIKUSKETAN

Vitoria-Gasteiz: hiria antolatzea, berdintasuna eraikitzea



**2020ko ekainaren 24 eta 25ean egindako partaidetza lantegien
emaitzak**

Deialdia eta antolaketa

Vitoria-Gasteizko Udala

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua
Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua

Partaidetza lantegien taldea (gea 21)

Mercedes Llop Pomares

Begoña Pernas Riaño

Marta Román Rivas

Isabela Velázquez Valoria

Laburpen dokumentuaren prestaketa

Gea 21, S.L.

Aurkibidea

I. BI PARTAIDETZA JARDUNALDIEN EGITARAUA	1
II. AURKEZPENA	3
III. ETORKIZUNEN LANTEGIA (2020KO EKAINAK 24, ASTEAZKENA).....	4
VITORIA-GASTEIZERAKO ESZENARIO POSITIBOA 2035. URTERAKO	4
VITORIA-GASTEIZERAKO ESZENARIO NEGATIBOA 2035. URTERAKO	6
BERDINTASUNEZKO HIRI BATERAKO PROPOSAMENAK	8
IV. BERDINTASUNEZKO HIRI BAT LORTZEKO EKINTZA PLANA (2020KO EKAINAK 25, OSTEGUNA).....	10
MUGIKORTASUNA ETA ESPAZIO PUBLIKOA.....	10
GIZARTERATZEA ETA EKONOMIA TALDEA.....	12

I. BI PARTAIDETZA JARDUNALDIEN EGITARAUA

2020KO EKAINAREN 24KO (ASTEAZKENA) EGITARAUA

- 17:30** **Harrera eta akreditazioa**
- 17:35** **Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpena**
- 17:45** **Etorkizuneko lantegia hiri tipologiaren arabera**
- Hirigune historikoa taldea
 - Zabalgune taldea
 - Garapen berriak taldea
 - Ingurabide kanpoko auzoak taldea
- 18:45** **Atsedena**
- 19:15** **Hirian berdintasuna bermatzeko ideiak eta proposamenak**
- Auzo eta etxebizitza taldea
 - Ekonomia eta enplegua taldea
 - Mugikortasuna eta espazio publikoa taldea
 - Ingurumena eta landa eremua taldea
- 20:15** **Ondorioak eta agurra**

2020KO EKAINAREN 25EKO (OSTEGUNA) EGITARUA

17:30 **Harrera eta akreditazioa**

17:35 **Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpena**

17:45 **Etorkizuneko lantegia, aurreko egunean prestatutako eszenarioetatik abiatuta**

- A taldea. Hirigintza, espazio publikoa eta ingurumena.
- B taldea. Gizarteratzea eta ekonomia.

18:45 **Atsedena**

19:15 **Hirian berdintasuna bermatzeko ideiak eta proposamenak**

- A taldea. Hirigintza, espazio publikoa eta ingurumena.
- B taldea. Gizarteratzea eta ekonomia.

20:15 **Ondorioak eta agurra**

II. AURKEZPENA

Dokumentu honetan laburbildu dira 2020ko ekainaren 24an eta 25ean Vitoria-Gasteizko Europa Jauregian egin ziren partaidetza lantegien emaitzak. Ondoz ondoko bi jardunaldi hauetan, guztira, 40 pertsona inguruk parte hartu zuten, gehienak emakumeak, ahots ozenez hausnartzeko, elkarrekin eztabaidatzeko eta Vitoria-Gasteizen etorkizunari buruzko proposamenak planteatzeko genero ikuspegitik.

Dokumentu honetan laburbildu dira, ahalik eta gardentasun handienarekin, ondoz ondoko bi lan arratsalde horietan zehar antolatu ziren bi saioetan agertu ziren iritzi eta proposamenen oparotasuna, baina ezinezkoa da hemen islatzea topaketa horietan guztietan sortu zen giro konstruktiboa eta elkarriketa.

Koronabirusaren krisia dela eta, prozesu hau, beste askoren moduan, aldatu behar izan dugu eta hasiera batean martxoan egitekoak ziren lantegiak ekainaren 24ra eta 25era atzeratu behar izan ziren. Bigarren deialdi honetarako metodologia egokitu behar izan da eta aurreikusitakoak baino talde txikiagoekin lan egin behar izan dugu, segurtasun baldintzak bermatze aldera. Hasiera batean martxoko saioetarako izena eman zuten hirurogeita hamar pertsonetatik, berrogei bertaratu ziren bigarren deialdira.

Jardunaldiaren xedea eta planteamendua berdin mantendu dira, baina lantegiak zatituta eta osoko bilkurak saihestuta, ezinezkoa baitzen pertsona talde handiak bildu eta modu horretan lan egitea. Topaketak segurtasun protokoloen arabera antolatu ziren eta, maskaren, mahaletako gelen eta eskatutako distantzien arren, giro bero eta atsegina sortu zen, elkarriketa eta adostasunak aurkitzea ahalbidetu zuena.


Gea21 taldeak moderatu eta koordinatu zituen teknikaren aldetik bi jardunaldi hauek. Halaber, haiek arduratu ziren aldibereko eztabaida lantegietan lana errazteaz eta eztabaidatzen zen guztia idatziz jasotzeaz. Horri esker, dokumentu honetan eztabaida horien edukia modu fidagarrian islatu ahal izan da.

Jarraian ageri diren etorkizunaren ikuspegiak eztabaidaren emaitza adostuetatik eratorriak dira, banakako ekarpenak eta elkarriketa konstruktiboa oinarri hartuta eraikitakoak.

Eskerrak eman behar dizkiegu parte hartu zuten pertsona guztiei beren denbora eta esperientzia komunitatearen zerbitzura jartzeagatik, eskuzabaltasun laudagarria erakutsita. Haiek gabe lantegi honen emaitzek ez zuten izango orain duten aberastasuna eta aniztasuna.

III. ETORKIZUNeko LANTEGIA (2020ko ekainak 24, asteazkena)

VITORIA-GASTEIZERAKO ESZENARIO POSITIBOA 2035. URTERAKO



Gure hiriarentzat nahi duguna

Bizitza errazten duen hiri bat

- Vitoria-Gasteiz ahaldundutako emakume errespetatuen hiri da, non posible den ugalketa, lana eta zaintzak bateragarri egitea.
- Hiriak zaintzak ahalbidetzen ditu.
- Hiri integratzailea eta arrazakeriarik gabea.
- Zaintza partekatuak.
- Segurtasuna kaleetan. Seme-alabak aske.

Auzo integratzaileekin

- Hiri hurbila da, zerbitzuak auzoan integratuta dituen, hurbileko merkataritzarekin eta belaunaldi anitzeko etxebizitza sozialekin. Kultura dago hirian eta auzoetan: antzokiak, zinemak, ...
- Tokiko merkataritza auzo guztietan.
- Bizitzaren ziklo guztietarako auzoak dituen hiri.

- Partaidetza sustatzen duten auzoak, denda txikiekin, komunitateko zerbitzuekin eta elkarrekin bizitzeko eta zahartzeko etxebizitzekin. Eta baratzeak.
- Pareko azpiegiturak eta zerbitzuetarako sarbideak dituzten auzo orekatuak.
- Askotariko merkataritza auzoetan, ez bakarrik tabernak.
- Komunikazioa, informazioa eta abar errazten duten auzo etxeak.
- Bizitzaren ziklo guztietarako auzoak dituen hiria.
- Auzo guztietan garbi dagoen hiria.

Emakume gazteentzako espazioak dituen

- Emakume gazteek kirola egiteko, aisialdirako eta topaketarako espazioak dituzte, emakumeek beraiek diseinatutakoak.
- Bizitzaren ziklo guztietarako auzoak dituen hiria.
- Topaketa (gazteena) ahalbidetzen duten espazioak dituen hiria.
- Gazteen topaketarako doako espazio estaliak.
- Gazteei zuzendutako aurrez aurreko jarduerak.
- Belaunaldi arteko aurrez aurreko jarduerak.

Benetan irisgarria den hiria

- Mugikortasun jasagarria benetakoa eta efizientea da. Errespetatu egiten den bidegorri sare funtzional bat dago bizikleta eguneroko garraiobidea izan dadin ahalbidetzen duena. Garraio publiko guztiak irisgarriak dira.
- Hiri irisgarria: espazio publikoa eta etxebizitza
- Elkarki lotutako ibilbideak dituen bizikleta sarea dago; lanera, zerbitzuetara, aisialdira eta abarretara bizikletaz iritsi ahal izateko.
- Auzoen arteko lotura ahalbidetzen duten bideen lurperatzea, hartara hiria auzoan integratuta eta auzoetako espazio naturalei onura aterata.
- Oinezkoentzako eta bizikletentzako (aparkaleku adimentsuak) hiria, irisgarria eta segurua.
- Auzoen arteko komunikazioa: lehentasuna garraio publikoari eta modu aktiboari.

Hutsik dauden etxebizitzak erabiltzen dituzten etxebizitza eredu berriekin

- Belaunaldi anitzetako etxebizitza sozialak auzo guztietan.
- Arrazoizko prezioa duten etxebizitzak daude hutsik dauden etxebizitzak erabiltzeari esker.
- Erabilera anitzeko eraikinak/ *coworking/ cohousing*.
- *Loop* etxebizitzak espazio komunekin / sareak sortzea.

Natura hirian integratuta duena

- Natura hirian, kaleetan eta uharte patioetan integratuta dago. Natura zaindu eta mantendu egiten da eta emakumeak seguru sentitzen dira bertan.
- Sarbide unibertsala baratze eta lorategietara – artea eta sormena haur eta gazteentzat.
- Biziklartzeko espazioak, ekonomia zirkularra.
- Alde zaharrak espazio berdeak ditu.

VITORIA-GASTEIZERAKO ESZENARIO NEGATIBOA 2035. URTERAKO



Gure hiriarentzat nahi ez duguna

Auzoka bananduta dagoen eta arrazakeria duen hiria

- Bereizte soziala auzoka.
- Arrazakeria duen hiria, emigratzaileak bakarrik bizi diren auzoak, auzo zaharkituak eta kanpo geratutako auzoak dituena.

Gizarte eta ekonomiaren aldetik geldituta dagoena

- Gizarte eta ekonomiaren aldetik geldituta dagoen hiria, desberdintasun handiagoeekin.
- Bizitarririk, negozioirik eta jenderik gabeko hiria.
- Hurbileko merkataritza gabeko hiria.
- Hiri inpersonala, auzoetan bizitarririk ez duena eta azalera handiko saltokiak besterik ez dituena.
- Gazterik gabea.
- Hutsik.

Degradatua

- Bideetarako erabilitako espazioak eta espazio berde eraikiak eta/edo baztertuak.
- Hutsik dauden etxebizitza ugari alde zaharrean.

Elkartasunik eta segurtasunik gabea

- Komunitate sarerik gabeko hiria. Zaintza monetarizatuak bakarrik dituena.
- Hiri arriskutsua.
- Segurtasunik eza.

Kotxeak nagusi diren hiria

- Kotxeak nagusi diren hiri arriskutsua.
- Kotxea gailendu da.
- Trafiko eta istripu ugari.



BERDINTASUNEZKO HIRI BATERAKO PROPOSAMENAK

INGURUMEN ETA LANDA EREMUAREN INGURUKO PROPOSAMENAK

1. Herrietan nekazaritza ekoizpena sustatzea.
2. Bizikleta ohiko garraiobide gisa.
3. Eratzun berdearen jarraipena eta hura lurraldean integratzea.
4. Hiri baratzeak sortzea auzo guztietan.
5. Birziklatzea garatzea, azpiegiturei, zerbitzuei eta hezkuntzari esker. Erabilitako olioak biltzeko puntu gehiago.

EKONOMIAREN ETA ENPLEGUAREN INGURUKO PROPOSAMENAK

1. Birbanatzea ahalbidetzen duen zerga politika, biztanleria zaurgarria erreskatatzeko eta genero arrakala ekiditeko.
2. Gazteei zuzendutako politika ekonomikoa: enpleguak, espazioak, guztiontzako kultura.
3. Tokiko zergak, hutsik dauden lonja eta etxebizitzak. Lokalen prezioa mugatzea merkataritza eta ETEak sustatzeko.
4. Bizitza erdigunean. Erakundeen aldetiko lan erreproduktiboaren aintzatespena: auzoko zerbitzuak bizitza ziklo osorako, eta lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea ahalbidetzen duten etxebizitzak eta kaleak.
5. Tokiko ekoizpena eta tokiko merkataritza eta enpresak mantentzea ahalbidetzen duen ekonomia zirkularra.

ETXEBIZITZA ETA AUZOEN INGURUKO PROPOSAMENAK

1. Lurzoru gehiago ez kontsumitzea. Eraikitako hiria birgaitu eta berriz ere bertan bizitzea.
2. Hutsik dauden etxebizitzaren errolda egitea, etxebizitza horiek birgaitzea eta etxebizitza parke publiko bat osatzen hastea.
3. Etxebizitza eredu integratzaile berriak bultzatzea, bizikidetza modu posibleei dagokienez eta espazioen osaera eta erabilerari dagokienez ere.
4. "Auzoa egiten duenak erabakitzen du". Herritarren partaidetza loteslea hiriaren eraikitze prozesu osoan zehar.
5. Bertan bizi direnen beharrei erantzuten dieten auzo integralak; kalitateko espazio publikoa, ekipamenduak, merkataritza eta ordaindutako lanerako espazioak dituztenak.

MUGIKORTASUNAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN INGURUKO PROPOSAMENAK


1. HAPOan erabilerarik ez duten espazioak auzo bakoitzeko partaidetzaren bidez sortutako etorkizuneko ideietarako.
2. Trafikoa baretzea.
3. Karga eta deskarga konpontzea, arautzea.
4. Eskoletarako ibilbide seguruak.
5. Sostengua bizikletari: bide seguruak eta elkarri lotuak, eta aparkaleku seguru eta estaliak.
6. Garraio publiko hobea: gaueko autobusak, garraio publikoa auzo barruan eta auzo artean.

IV. BERDINTASUNEZKO HIRI BAT LORTZEKO EKINTZA PLANA (2020ko ekainak 25, osteguna)

MUGIKORTASUNA ETA ESPAZIO PUBLIKOA TALDEA

Neurrien lehentasuna, inpaktua eta zailtasuna

Helburua zen aurreko eguneko neurriak eta beste berri batzuk ordenatzea, genero berdintasunarekiko duten inpaktuaren arabera, eta gauzatzeko zailtasuna kontuan hartuta. Jarraian ageri den eskeman islatu dira taldeak hartutako erabakiak, neurriak inpaktuaren arabera eta abian jartzeko zailtasunaren arabera sailkatuta.



- **Estrategikoak:** talde honen barne dauden neurriek berdintasunarentzat inpaktu handia dute, baina egikaritzeko duten zailtasun handiagoa dela eta, politika publikoen eta gizarte ekintzaren helmuga gisa ezartzen dira. Alderdi estrategikoenak hiru oinarriko elementurekin lotuta daude, taldeak lantegi osoan zehar azpimarratutako moduan: etxebizitza publikoaren aldeko apustua, auzoak ongi hornituta egoteko aldarrikapena eta hurbileko merkataritzaren defentsa irmoa.

Taldeak beharrezkotzat jo zuen etxebizitza eskaintza publiko eta egokia izatea eta, horretarako, hutsik dauden etxebizitzak erreskatatu eta berrerabiltzea. Honela, esku hartze publikoak auzo finkatuetako arazoetako bat konpontzen lagunduko luke: erabiltzen ez diren etxebizitzak eta horrek dakarren bizitasun falta. Aldian aldiko sostenguak alde batera utzita, hurbileko merkataritza izateko beharrezkotzat jotzen da sektorearen berrikuntza, hartara sektore horren bideragarritasuna bermatuta gizartearen kontsumo moduak aldatzen ari diren garai honetan. Merkataritzaren suspertzea estuki lotuta dago auzo guztiak eguneroko bizitza errazten duten zerbitzuez hornitzeko ildo estrategikoarekin.


- **Ekintza plana:** neurri hauek inpaktu handia dute berdintasunean eta, era berean, egikaritzea ez da horren zaila, sostengu sozial zabala dutelako eta, oro har, merkeagoak direlako edo neurriak abian jartzeko baliabideak lortzea errazagoa delako. Sei neurrietatik, lau mugikortasunarekin lotuta daude: auzoetara doan garraio publikoa hobetzea; intermodalitatea ahalbidetzea; eskoletarako ibilbideak sortzea; eta modu aktiboak eta garraio publikoa hiriaren diseinuan integratzea. Taldeak azpimarratu zuen funtsezko beste neurri bat da gizarte partaidetza bultzatzea, erabakietan eragin handiagoa izateko gaitasunarekin. Taldeak ikusi ahal izan duenez, zenbait auzotan jada abian jarri da hutsik dauden espazioen birgaitzea eta espazio horiei erabilera bilatzea.
- **Neurri sinbolikoak.** Atal honetan sartu zituen taldeak hiria hobetzeko garrantzitsuak diren baina genero berdintasunean inpaktu txikiagoa duten neurriak. Hiru neurri mota aurki daitezke talde honetan: bizikleta sarea eta azpiegiturak hobetzearen ingurukoak; espazio eta eraikin publikoak berritu eta hauen erabilera erraztearen ingurukoak; eta azkenik, lurzorua birmaturalizatu eta eraiki gabe mantentzearen ingurukoak.
- **Luxua.** Atal honetan bildu dira genero inpaktu txikia eta egikaritze kostu eta zailtasun handia duten neurriak. Atala hutsik geratu zen ez baitzen aipatu baldintza horiek betetzen zituen neurririk.



GIZARTERATZEA ETA EKONOMIA TALDEA

Neurrien lehentasuna, inpaktua eta zailtasuna

Jarraian ageri den eskeman islatu da taldeak hartutako erabakia, neurriak inpaktuaren arabera eta zailtasunaren arabera sailkatuta.



- **Estrategikoak:** neurri hauek dira politikaren epe ertainerako etorkizuna definitzen dutenak, hau da, berdintasuna bermatzeko gizarteak sakonki aldatu beharreko alderdiak: dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizitza independentea ziurtatzea, gizarteak seme-alabak izatea ez zigortzea, partaidetza loteslea duen hiria lortzea edo aukera berdintasuna jatorri orotako gazteentzat.
- **Ekintza plana:** neurri hauek gobernu ekintza guztien barne egon beharko lirateke berebiziko garrantzia duen oinarriko berdintasun maila bermatu ahal izateko: irisgarritasun unibertsalaren legea betetzea eta genero ikuspegia aplikatzea aniztasun politika guztietan; emakumeek lan merkatuan sufritzen duten lanaren, gizartearen eta ekonomiaren arloko segregazioaren aurka borrokatzea; gazte enplegurako politika; eta bizitza autonomoa izateko behar diren merkataritza eta banku zerbitzu guztiak dituzten auzoak lortzea.

- **Neurri sinboliko edo kulturalak.** Neurri hauek aldaketak dakartzate orokorrakoak eta, zenbaitetan, sinbolikoagoak diren jokabideetan, baina irmotasunez garatzen badira, garrantzi handikoak izan daitezke: agerikoa da garraio publiko hobea ez dela genero berdintasunean inpaktu handiena duen alderdia, baina herritarrei askatasun eta berdintasun handiagoa emango lieke eta emakumeen hirirako eta autonomiarako eskubidea indartuko luke. Kale seguruagoak, espazio publikoan elkarrekin bizitzeari buruzko kanpainak, gazteen ikuspegia kontuan hartzen duen diseinua, adinekoen, dibertsitatea duten pertsonen eta hauren erritmo eta abiaduraren errespetua... Horiek guztiek mezu kultural bera helarazten dute: hiriak erritmo eta behar desberdinak kontuan hartu behar ditu neurri berean, eta desberdinen artean bizitzen irakatsi behar digu. Hori lortzeko modu bakarra da mundu guztiak bere tokia izan dezan ahalbidetzea eta pertsona guztiek ikusgarritasuna eta ahotsa izan dezatela.
- **Luxua.** Adierazpen honek ez du esan nahi neurria egokitzat jotzen ez denik, izan ere, luxua beharrezkoa da bizitzan eta politiketan ere bai. Esan nahi duena da neurri zaila dela eta berdintasunean inpaktu txikiagoa duela. Era berean, amets bat islatzen du: gazte enplegua Gasteizen etorkizuneko garapenaren gakoetako bat izan dadila eta horren aldeko apustu irmoa egin dadila. Gazteek independenteak izan nahi dute, prestatu eta era berean lan egin nahi dute, hautatuko bideen edo bakoitzaren jatorriaren ondorioz beste aukera batzuk galdu gabe.

